



zinema:
KEPA SOJO >
“Loco con ballesta da film laburren Goya sarirako hautatu duten komedia bakarra”

“Ehun jaialdi ingurutan egon da filma: Frantzia, Italian, Estatu Batuetan, Mexikon... eta 25 sari irabazi ditu” 10.or

Kirola

ELKARRIZKETA:
 Aingeru Castro,
 Euskadiko
 Rally Spring
 txapelduna 12. or.



Euskara

Martxoaren 25ean
 zeharkatuko
 du Korrika 19k
 Aiaraldea 12. or.



aiaraldea **eus**

Aiaraldeko
 hamabostekaria
 2015 /// Urtarrilak 29 ///
 OSTEKUNA
 27. alea ///
 Doan ///
 www.aiaraldea.eus



Aiaraldea Krisitik atera ezinik

IKUSPUNTUAK:
IMANOL ESNAOLA (Gaindegia Behategiko koordinatzailea) /
URTZA ERRAZTI (IEZeko gerentea) / **JON ASPURU** (APYMCA) /
JUANJO BASTERRA (Ekonomia kazetaria) / **IZASKUN GARCIA** (LAB) /
ITZIAR LARRAZABAL (ELA) / **JOSUNE IRABIEN** (Amurrioko alkatea)

PUBLIZITATEA



Gure aukera,
 ikastola!

aresketaikastola
 www.aresketaikastola.net

PUBLIZITATEA

Matrikula epea:

Otsailaren
 2tik 13ra.

**DBH
 BATX. GUZTIAK ETA
 LANBIDE HEZIKETA**

**GELA GUZTIAK
 INFORMATIZATUAK**

**ANIZTASUNAREN
 TRATAERA ZABALA**

**PROIEKTU ELEANITZA
 ERASMUS +**

**JANTOKIA ETA GARRAIOA
 DIRUZ LAGUNDUTA**



IES LAUDIO BHI
 www.laudioinstitutua.net / 946720086

_iritzia



Txutxi
Ariznabarreta
INDEPENDENTISTAK SAREA

_Leihotik

Zergatik ez?

X XI. mendearen hasieran ametsetan ere ez genuen imaginatuko urte gutxiren bueltan eskoziarren erdiek independentziaren alde bozkatuko zutenik Londonen onepenez burutuko zen erreferendumean, eta independentziatik urrats txiki batera jarriko zen Eskozia.

Nork pentsatuko zuen Katalunia bere estatut-aren erreforforma batetik harago joango zenik, eta debeku eta mehatxuei aurre egin eta independentziari buruzko kontsulta burutu eta hauteskunde plebisitariok deituko zituenik?

Orain dela urte bete nork aurreikusiko zuen Syrizen moduko ezkerreko mugimendu baten, Troikaren mehatxuak gaitu eta, Greziak bere burujabetza berreskuratzea helburu hartuta, hauteskundeak irabaziko zituenik?

Eskoziara begira egon ginen udazkenean. Greziara begira gaude neguan. Kataluniara begira daramagu bizpahiru urte. Noiz jarriko gara geure herrira begira? Eskoziarrek, katalanek eta greziarrek euren etorkizuna jokoan dagoela ikusi dutenean, egoera iraultzea posible dela sinestu egin dute, eta martxan jarri dira. Euskal Herrian ere, lehen independentzia ezinezkotzat jotzen zuen herritar asko posible dela sentitzen hasi da, baina sinestea falta zaigu.

XXI. mendean utopiak errealitate bilakatzeko aukerak zabalitzen ari dira European. Euskal Herrian ere, zergatik ez? Euskal herritarren etorkizuna ere jokoan dago. Jar gaitzen martxan. Independentziaren garaia da.



Jon
Ikslea

Galdera ona. Ez dakit. Gaur adibidez gidabaimena lortzeko azterketa egin dut, eta gainditzea espero dut. Maila pertsonalean ere iragan urtea baino hobea izatea eskatuko nioke urte berriari. Maila orokorrago batean, Orozkon gaztetxe bat egotea nahiko nuke.



_GALDERA

Zer eskatzen diozu urte berriari?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



Teresa
Erretiratu

Bakea, lana eta osasuna eskatzen dizkiot urte berriari. Ez dut besterik eskatzen. Lana eskatuko nuke nire bi semeentzat, eta baita nire bilobarentzat ere. Ez dute lanik, eta nire soldatarekin bizi dira. 600 euro kobratzen ditut hilean, eta diru horrekin konpontzen gara.



Gorane
Arropa saltzailea

Zer eskatzen diodan urte berriari? Salmentak apur bat igotzea. Gainontzekoagatik, pasa den urteetako egoera mantentzea eskatuko nuke. Maila pertsonalean urte honi begira ez diot nire buruari erronkarik jarri. Beste alde batetik, maila pertsonalean, ezkontzea eta umea izatea espero dut urte berrietan.



Igor
Fruta saltzailea

Ireki berri dudana negoziarioa ondo joan dadila eskatzen diot urte berriari. Ezkontzeko asmoa ere badaukat aurten, eta ezkontza eta ezkontzaren ostean egingo dugun jaia ondo joatea ere espero dut. Jendarteari begira, nire inguruko jendeak lana topatzea nahiko nuke, gauzak txarrago joan ez daitezzen.



Jali
Sukaldaria

Osasuna iazko berdina izatea gustatuko litzaidake. Saharar herriari ere zortea eta independentziaren aldeko borrokan pausoak eman ditzala opa diot. Maila pertsonalean, sukaldaritzaren titulua lortzea espero dut, orain Huescako Bielsa herriko ostatu batean ari bainaiz lanean.

_gutunak

Partaidetza, pausoka

Eneko Gastaka Urruela (Laudio)

Azken urteetan prozesu parte-hartzaileren gorakada bat eman da hainbat mailatan. Audioko auzo asanbladetatik, azaroan Amurrioko udalak proiektu estrategikoen balorazioa egiteko bideratutako prozesuraino, gure ingurunean ere hazkundera dauden dinamikak dira. Dena den, nabarmena da ere dinamikak kritika asko jasotzea, eta arrazoi osoz. Asanbladak kexak botatzeko esparru bihurtzea, eta gero eta jende gutxiagoren partaidetza duten toki bilakatu izana aspektu kritikagarriak dira duda barik. Baina honek ezin du gure jarduna apaldu behar edukitako esperientziak ez direlako hasieran uste bezain eraikitzaileak izan.

Gizartearen aldaketak, jauregiko aferak bezala, astiro doazen prozesuak dira, eta Euskal Herrian parte hartzeko aparteko grina dugun arren urte asko daramatzagu gure etxeetan eserita, politikariek zer egin esperoan. Demokrazia liberalak hori defendatzen duelako, "zuek arazo pribatuei ez eginda geratu, elite politikoa garenok zuen arazo guztiak konponduko ditugulako".

Eta hori aldatzeak pazientzia handia eskatzen du. Horregatik, parte hartzea patxadaz baina ekin hartu dezagun!

Aiaraldean TTIPari ez!

Aitor Bikandi (Askapena Aiaraldea)

Munduko 80 pertsona aberatsenak 3.500 milioi txiroenak bezain besteko oparotasunean bizi dira. Datu honen aurreko erantzuna zifren arteko desberdintasuna bezain ozena izan badaiteke ere, erabaki-hartze esparruetara ez da oihartzunik heltzen. Davos-en ospatutako Mundu Ekonomia Forumean adibidez, Europako hainbat herrietako biztanleria txirotu dituzten neurriak txalotzen ikusi ditugu. Forum horretan bildutakoak dira AEB eta Europaren arteko Merkataritza eta Inbertsioen Itun Transatlantikoa (TTIP) sustatu eta isilpean, eztabaidari lekua utzi gabe, hain eragin lazarriak izango dituen ituna onartuko dutenak.

Lan baldintzak okertu, zerbitzu publikoen pribatizazioa eta transnazionalen gailentasuna indartu, eta elikagai eta ingurugiroan segurtasun baldintzak murriztu dira itunak ekarriko dituen eragin bultzak, dagoeneko sakona den desberdintasuna handituz, herri langilearen kontrako tresnak sendotuz eta sustengarritasun ideologiko zein ekonomikorik ez daukan sistema hegemonikoaren indarrezko ezarpenari ekinez.

Esku-hartze inperialistaren aurrean herri-mailako alternatibak eraikitzeko garaia da.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Tirada:

10.000 ale.

Maistasuna:

Hamabostekaria

Lege gordailua:

BI-1230-2013

Erredakzioa:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

Publizitatea:

publizitatea@komunika.eus

Tlfnoa: 669 83 57 87

Web-gunea:

www.aiaraldea.com

Helbidea:

Nerbio Kalea 1, 3. esk.

Laudio. Araba. 01400

Telefonoak:

Tel: 94 656 85 54

Tel: 688 848 152

ERREDAKZIO OHARRA:

Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

CuadraBus

Zankueta Poligonoa z/g -
01468 Amurriño, Araba.
Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

Graf!k

Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ

JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · 01400 Laudio
(Araba) Tel.: 946 721 200
Fax: 946 720 092 infor@jez.es

ausolan

Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Laudio

Kasille baserria omenduko dute San Blas azokan



San Blas azokan urtero omentzen dute baserri-bizimodua. aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Andoni Larrea Uribarri

Data hauetan tradizioa den bezala, baserriko bizimodua, produktuak, eta ohiturak omentzen dituen San Blas eguna egingo da Laudion. Urtero bezala, ospakizuna ekintzaz beterik dator.

Egitarauak, urtarrilaren 29an, osteguna, hasiera izango du Terencio VIII. txerriaren aurkezpenarekin. Aurkezpena goizean

egingo da, merkatuan. Larunbatean berriz, urtarrilaren 31n, Aldai Plazan izango da sanblasetako ekitaldi nagusia: San Blas azoka.

13:00etan azokaren momenturik hunkigarrienetako bat izango da, Kasille baserriko Lorenza Andikoetxea eta Antonio Atxabaserriarren omenaldiarekin.

Aisialdi guneetan estalkiak jartzea adostu dute

ERREDAKZIOA |

Alderdi guztiek adostu dute asteheneko udalbatzan ume eta pertsona nagusien aisialdi guneetan estalkiak jartzearen aldeko mozioa. Hasiera batean sozialistek aurkeztu zuten testua baina gero EAJrekin lortu zuten akordioa.

Bilduk, aldiz, mozio alternatiboa prestatu zuen. Hala ere, udal osoko bilkuran gai horren inguruan egindako eztabaidan alderdi guztiek adierazi dute estalkiak jartzearen alde daudela. Ondorioz, etenaldia egin ostean, testu bateratua aurkeztu eta onartu dute talde guztien botoen bitartez -Omnia, PP, PSE-EE, Bildu eta EAJren botoekin, alegia-.

Akordioari esker umeen parkeak eta pertsona nagusiek ariketa fisikoa egiteko dauzkaten guneak aztertuko dituzte eta beharren arabera udalak proposamena gauzatuko du estalkiak jartzeko.

Alderdiek azaldu dute auzo batzarretan maiz agertu den eskaera dela hori. Tokiko klimatologia dela eta urteko hainbat egunetan ezin dira azpiegitura horiek erabili. Horien egoera ondo analizatu eta gero, erakundeak erabaki beharko du gune batzuk ala guztiak estali behar diren..

Santa Luziako plan berezia onartzea mahai gainean

ERREDAKZIOA |

Urtarrileko udalbatzan Santa Luzia Kontserbatzeko Plan Bereziaren bigarren onarpena gauzatu behar zen baina otsailean erabakiko da. Oposizioko alderdiek udal arloko teknikarientzostenak eskatu dituzte eta mahai gainean geratu da ekimena. Informazio gehiagorekin eztabaidatzeari ekingo diote hurrengo hileko udal osoko bilkuran.

Presoen aldeko ikur bat kentzeko agindua

ERREDAKZIOA |

Gasteizko administrazioarekiko auzi-prozesu epaitegiak udal etxeko fatxadan euskal presoak Euskal Herrira bueltatzeko eskatzen duen ikurretako bat kentzea agindu dio Udalarari -eraikineren ezkerrean dagoena, hain zuzen-, Carlos Urquijok bideratutako helegitea ebatziz. Ikurra Bilduko zinegotzietatik duten bulegoen eskegi zuten. Udalak ez du adierazpenik egin baina helegitea jarri dezake.

Urduña

“Berezko hiria” izango da Urduñaren marka berria

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako marka berritzeko lehiaketa ebatzi du Udalak. “Berezko hiria, ciudad natural” izango da hiria ordezkatzeko duen lema. Datozen hilabeteetan garatuko dute behin betiko marka, urte amaieran txertatzeko helburuarekin.

Damderg Contraste Comunicación enpresak irabazi du. Irudi nagusian Foru Plazako iturria erabili dute. Arlo bakoitzarentzat, berriz, bertsio ezberdinak aurkeztu dituzte.

Lehiaketaren ebazpena

Guztira zortzi proposamen egon dira. Aurkeztutako lanak turismo bulegoan egon ziren ikusgai abenduan, ikusleek gogokoena zutena bozka zezaten.

Epaimahai teknikoa Luis Encinar artista urduñarrak, marketing aholkularitzako enpresa batek, euskara teknikariak, Urduñederrako ordezkariak eta herritarren ordezkari batek osatu dute.



aresketa ikastola

MATRIKULAZIOA: OTSAILAREN 2tik 13ra



aresketa auzoa, 2 01470 Amurrio (Araba)

www.aresketaikastola.net

☎ 945890360

aresketaikastola@aresketaikastola.net

_herriz herri

Aiaraldea

Korrika Okondotik sartu eta Amurriotik aldendu da martxoaren 25ean

Korrika 19 AIARALDEAN

MARTXOAK 25, ASTEAZKENA

- > Gordexola (02:16) Okondo
- > (02:55) Laudio
- > Luiaondo
- > Murga (03:53) Arespalditza
- > Izoria
- > Belandia
- > Mendeika
- > Lendoño (05:55) Urduña
- > Saratxo (06:50) Amurrio
- > Lezama
- > Baranbio (09:14) Murgia

ERREDAKZIOA | Altor Aspuru Saez

AEK-k aurtengo Korrikaren ibilbidea zehaztu du dagoeneko. Urepeletik abiatuko da martxoaren 19an eta Aiaraldeari dagokionez, martxoaren 25ean egingo du bere bisita.

Okondora joko du gaueko 02:16an eta gero Laudio -02:55ean-, Aiara -03:53an-, Urduña -05:55ean- eta Amurriotik -06:50ean- pasako da Araban murgiltzeko -Murgiara helduko da 09:14an-. Aiaraldea.eus-ek jarraipen berezia egingo du euskararen erabilera sustatzeko helburua duen ekimen honi buruz. Egunean bertan zein aurretik.

Tamalez, 25eko aiazango da Korrikak Aiaraldean egingo duen bi-

sita bakarria eta eskualdeko herri ugari ez ditu igaroko; Arrankudiaga-Zollo, Arakaldo, Artziniega eta Orozko, alegia. Artziniega eta Orozkoko kasuetan bertako euskaldunak bigarren aldiz jarraian geratuko dira Korrikaren bisitarik gabe. Ondorioz aiaraldea ugari beste herri batzuetara hurbildu beharko dira Korrikan parte hartzeko.

Horretarako aukera aproposa izango da Korrikaren amaiera. Bilbon izango baita martxoaren 29an.

Aurtengo edizioaren leloa "Euskahaldun" da. Hitz horrekin hurrengo mezua zabaldu nahi dute Korrikaren antolatzaileek:

"Euskaldun eta euskaltzale guztiok osatzen dugu Euskal Herria, Euskararen Herria. Eta horixe aldarrikatu nahi dugu: guztion artean, auzolanean eta elkarlanean, lortu ahal dugula euskaraz biziko den herria, euskalakariz osatutako herria. Herri honek auzolanean eta elkarlanean lortu behar duen handiak egin ditu -Korrika bera, esaterako- eta iraganean bezala gaur egun ere eskuzabala eta ahaltsua dela frogatuko du. Hori da Korrikaren eta AEK-ren nahia".

Ibilbide guztia sareratu du AEK-k, ikusteko hurrengo QR koderabideratuko zaituzten web-atarira jo dezakezue.

Matrikulaziorako atek irekiko dituzte ikastetxeek

ERREDAKZIOA | Eskualdeko ikastetxeek aurre matrikulazio kanpaina abiatu dute eta horretarako bilerak antolatu dituzte.

Etxaurren Ikastolak 18:00etan deitu du bilera Luiaondoko Gizarte Etxean gaur. Amurrioko Aresketa Ikastola otsailaren 2an bi urteko umeen gurasoekin elkartuko da, 18:00etan Kilikolo Haur Hezkuntza Ikastetxean (Etxegoien 19). 2012an jaiotako haurren gurasoentzat otsailaren 4an izango da hitzodua, 18:00etan Aresketa Ikastolan. Gainerako balizko ikasleentzat, Luiaondoko Gizarte Etxean bilera orokorra deitu du Aresketak otsailaren 3an 17:30ean.

Zaraobe Institutuak atek irekiko die Artziniega, Amurrio, Urduña eta Aiarako ikasleei otsailaren 12an, osteguna, 18:00etan.

IES LAUDIO BHiko zuzendaritzak gauzabera egingo du otsailaren 4an 18:00etan. Amurrioko Lucas Rey ikastetxeak bihar, urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 15:00etan, bilera antolatu du 2 urteko umeak matrikulatzeko asmoa daukaten gurasoekin. Laudioko Latorro ikastetxearen atek irekien txanda otsailaren 2an helduko da, 17:15ean eta Orozkoko eskola-ko otsailaren 3an, 16:30ean.

Otsailaren 5ean Lamuza Ikastetxeak nahi duen orori ongi etorria egingo dio 17:15ean. Laudioko Udal Heziketa Ikastetxeak martxotik aurrera asteazkenero goizeko 11:00etatik 13:00era arte irekiko ditu bere atek eta Laudio Ikastolak, nahi duenari irekiko dizkio atek nahiago duen unean, aurrez deitzen badu.

Orozko

Adiek eta EAJk egindako aurrekontua onartu dute

ERREDAKZIOA | Orozkoko udalak 4.059.800 euroko aurrekontua onartu du asteartean. 2014an baino 90.700 euro gutxiago izan arren 260.355 euro gehiago gastatuko ditu erakundeak hainbat beharrei aurre egiteko -azpiegiturak eta zerbitzuak gehienbat-.

Udal gobernu taldeak uste du aurtengo egoera ekonomikoa orekatuagoa izango dela, Zubiaur Eraikuntzak sozietatearen kontuak ez baitira hain txarrak izango. Likidazioaren ondorioz 2014. urteko azkenengo hiru hilabeteetan 3 pisu, 2 lokal komertzial eta garaje bat saldu dira. Salmenta horiei esker 576.389,9 euroko diru sarre-ak izan ditu Zubiaur Eraikuntzak sozietateak.

2015eko aurrekontuak EAJ eta Adie taldeek elkarlanean landu dituzte eta talde independenteak jeltzaleek egindako bi iradokizun txertatu ditu.

Euskara ikasteko diru-laguntzak arautu dituzte

ERREDAKZIOA | Udalak 2015-2016 ikasturterako euskara ikasteko diru-laguntzen araudi berria onartu du. Eskatzaileak izan daitezke, Orozkon erroldatutako 16 urtetik gorakoak, Orozkoko dendetako edo ostalaritza establezimenduetako jendurako langileak zein euskara plana duten enpresetako langileak. Bakoitzak 500 € jaso ahal izango ikastaro bakoitzeko, eta gehienez 800 €..

OKONDO ESKOLA

Zatoz gure eskola ezagutzera!!

- "D" EREDEKO ESKOLA GARA
- AMARABERRI METODOLOGIA
- "GOIZEKO GELA" ZERBITZUA
- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK
- JOKU HEURISTIKOA 2 ETA 3 URTEKO GELETAN
- PSIKOMOTRIZITATE SAJOAK
- INGELESA 4 URTEK AURRERA
- MUSIKA 3 URTEK AURRERA

KALITATEA HEZKUNTZAN

Irakurri, ES - 01409 OKONDO (Araba)
Tel: 945 596127 - e-mail: 91040000@euskaltz.net

Laguntza behar duzu informatikarekin.

QUICK PC REPAIR

tel.: 685701956

@: quickpcrepair@quickpcrepair.es

_herriz herri

Amurrio



Alkinarreko auzokideekin batzarra. Argazkia: Begoña Guillén

Auzo batzarrak abiatu dituzte "auzobegiraleen" figura indartuz

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Bai auzokideen iradokizun⁽¹⁾ eta kexak jasotzeko zein bere lana azaltzeko erabiltzen ditu udalak auzo batzarrak. Erakundearen eta herritarren arteko zubi hori 2012an abiatu zuten, eta aste honetan izan du jarraipena.

Bilerai berekiak egin dira Alkinarreko auzokideekin, asteartean, eta Larrabekoekin, atzo.

Hurrengo hitzordua⁽²⁾ Landakoko auzokideekin izango du udalak, udaletxean bertan, otsailaren 2an, 18:30ean. Bi egun geroago, otsailaren 4an, eta ordu berean Arenalde auzo elkartearen egoitzean San Joseko auzokideekin izango dute aukera udal ordezkariekin⁽³⁾ hitz egiteko. Otsailaren 6an Goikalarra auzoaren txanda helduko da, 18:30ean kulunken plaza alboan dagoen lokalean antolatu baitute

bilera. Otsailaren 9an San Rokeko auzokideei aukera bera eman gogoratzeko diete 18:30ean baselizan.

Bukatzeko, otsailaren 11n Bañuetabarreko auzokiek izango dute hitzordua udaletxean 18:30ean.

Bilera horiek guztiak erabiliko ditu udalak gogoratzeko Auzobegiralea indarrean jarri zutela aspaldi. Horren helburua da auzokideen kexak bideratzea. Horretarako udaletxera joan daitezke amurriarrak, 945891161 telefonora deitu edo partehartzea@amurrio-org helbidera idatzi.

Hiztegi lagungarria

Iradokizun⁽¹⁾, aholku / hitzordu⁽²⁾, zita / ordezkari⁽³⁾, pertsona edo erakundea ordezkatzeko duena

Arabazoen inbasioarekin bukatu dute

ERREDAKZIOA |

Arabazozok dira Amurrioren modu masiboan agertu diren txoriak. Inbasio horri aurre egiteko udalak enpresa kontratatu du eta horrek lortu du hegazti gehienek alde egitea herritik.

Enpresak puntako teknikak erabili ditu txoriak aldentzeko. Makinen eta laserren bitartez arabazoen harrapakari soinuak imitatu dituzte eta modu horretan lortu dute txorien presentzia murriztea neurri handi batean. Hasieran heldutako taldeetatik % 10 besterik ez da gelditu herrian.

Ibaia garbitzeko hitzarmena Ura Agentziarekin

ERREDAKZIOA |

Amurrioko Udala eta Ura Agentziak hitzarmena sinatu dute ibaia-ertzen garbiketa eta mantentze-lanak elkarrekin gauzatzeko. Modu horretan bideratuko diren bitartekoak koordinatu eta eraginkorrak egin ez ezik, uholdeei aurre egiteko neurriak ere gauzatu nahi dituzte. Uraren helburuen artean ibaien inguruneak zaintzea eta ubidearen gaitasun hidraulikoa mantentzea daude. Uraren ibilbidean oztopoak kenduz saihestu nahi dute puntu zehatzetan uholdeak gertatzea.

Okondo



San Sebastian jaia Otaola auzoan

ERREDAKZIOA |

Ohitura handiko jaia da San Sebastian Okondon. Larunbatean ospatu dute, eta Otaola auzoan haimaiketako egiteaz gain, herrira jaitsi dira Goikoetxea auzotik igaro eta gero. Ibilbidea moztutako zuhaitz pare batekin egin dute, helduek handiena eraman dute eta umeek bestea. Herrian egurra egin dute zuhaitzaren sua elikatzeko eta neguari aurre egiteko.



LAUDIO
ikastola

izan zirelako gara,
garelako izango dira

www.laudioikastola.net
94 672 67 37

ESKOLA PUBLIKOA ORAIN ETA HEMEN

Matrikula epea:
otsailaren 2tik 13ra

**ZABALEKO
IKASTETXEA**




S. Jose Auzoa
AMURRIO
Tfno.: 945 890 462
Fax: 945 891 724

email: 010003aa@hezkuntza.net

**LUCAS REY
HERRI IKASTETXEA**




Lucas Rey
kalea, 15
AMURRIO
Tel.- Fax:
945 890 481

email: 010327aa@hezkuntza.net

**ETXAURREN
IKASTOLA**




amara berri

Ibagueñ auzoa, 1
ZUHATZA
Tel.: 945 39 92 87
648759720
648759723
Fax: 945 399 346

email: 010165aa@hezkuntza.net
www.etxaurrenikastola.hezkuntza.net

**ARTEKO GURE AMA
HERRI IKASTETXEA**




La Bârcena,
ATZINIEGA
Tel.: 945 396 046
Fax: 945 396 520

email: 010010aa@hezkuntza.net
www.artekogureama.com

**URDUÑA HERRI
IKASTETXEA**




San Francisco, 3
URDUÑA
Tel.-Fax:
945 383 504

email: 014379aa@hezkuntza.net

**ZARAOBE
INSTITUTUA**




Etxebarriaur, 8
AMURRIO
Tel.: 945 393 000
Fax: 945 393 682

email: zaraobe@zaraobe.net
www.zaraobe.net



Berreskurapen ekonomikoa, Aiaraldean?

Industriari oso lotua dago Aiaraldeko egoera sozioekonomikoa. Irudian Urduñako industria-gune abandonatu bat. Argazkia: Jon Catalan

ERREDAKZIOA | I Txabi Alvarado Bañares

"Aurtengoa berreskurapen ekonomikoaren urtea izango da". Hainbat komunikabide zein instituzioetako ordezkariak esandako esaldia da hori. Eta badaude baieztapen hori defendatzeko datuak. Duela gutxi atera da datu baikor¹⁾ horietako bat: langabezia %0.96 jaitsi da Euskal Autonomi Erkidego mailan 2013ko abendutik iazko abendura bitartean.

Aiaraldean, baina, argudio hori kontra-argudio bilakatzen da, denbora tarte horretan ez delako langabezia jaitsi eskualdean. Kontrakoa gertatu da, abenduan iaz²⁾ baino %2.2 langabetu gehiago erregistratu ziren.

Datuak zehetasun gehiagorekin ikusita, baina, ezberdintasunak topatu daitezke eskualdeko herrien artean: Herri txikienetan EAEko batz-besteak (%15.3) behera koatzen da langabezia tasa. Amurrio eta Laudioko tasetan dago gakoa, erkidegoko tasa altuenen artean kokatzen baitira: %17 eta %19.1, hurrenez hurren. Horren arrazoiak? Adituek kausa posible ugari seinatu dituzte:

Industriaren pisua

"Aiaraldea oso lotua egon da industriari, eta baita Bilbo inguruan egon den industriaren hedapenari". Hala uste du Gaindegiako koordinatzailea den Imanol Esnaolak: "Aiaraldeko jarduera ekonomikoak manufakturarekiko lotura handia dauka. Manufaktura izan da, hain zuzen, azken urte hauetan lanpostu gehien desegin dituen sektoreetako bat".

Baieztapen horrekin bat egiten du Aretako Juanjo Basterra ekonomia-kazetariak, eta datu batzuk jarri ditu mahai gainean: "1996an industriak %41eko pisua zeukan Aiarako Koadrilako ekonomian, baina 2010erako %34ra jaitsi zen". Krisi ekonomikoa medio, industriaren sektoreak "oso kolpe gogorra" jaso duela ziurtatu du Itziar Larrazabal ELAko metal arloko arduradunak, eta gaineratu du kolpe horren ondorioz "industriako langile askok" langabezian amaitu dutela.

Lipmesa, Kider edo Vicalde dira horren adibide: hiru enpresa horienitxiek 300 langabetu gehiago egotea eragin dute. Hala ere, LABko kide den Izaskun Garciak azpimarratu du "eskualdeko enpresarik handienak" ez direla itxi, "enpresa txikiak dira itxi direnak, eta autonomo ugari ere utzi egin behar izan dute zeramaten negozioa".

"Zoritxarrez, enpresa handienek tamaina ertaineko enpresetan eragin handia dute", azaldu du Josune Irabien Amurrioko alkateak. Bide berean, JEZ enpresako gerentea den Urtza Erraztik "Aiaraldeko enpresa guztiak" pairatu dutela krisia adierazi du, "baina ez guztiak momentu berean ez eta intentsitate berarekin". Bere hitzetan, krisia hasiaurretik ere oso ondo ez zebiltzan enpresak egon dira eskualdean, eta krisia iristean desagertu egin dira. "Enpresa horietako asko merkaturik gabe geratu dira", gaineratu du. JEZko gerentearen ustez, enpresa nagusienek enpresa txikien zerbitzuak azpikontratatu zituzten: "krisia iristean, baina, en-



Imanol Esnaola

Gaindegiako koordinatzailea

"Egia da Aiaraldeko jarduera ekonomikoak manufakturarekiko lotura handia duela eta hori izan dela, hain zuzen, azken urteetan lanpostu gehien desegin dituen sektoreetako bat"

"Eskualdearen kasuan argi ikusten da inbertsio txikia egiten dela lkerketa, Garapen eta Berrikuntzan"

"Berreskurapen ekonomikoari begira Aiaraldeari ezinbestekoa zaio bere oinarriak berritzea"

presa handiek euren langileria baliatu dute enpresa txiki horiek eskaintzen zutena egiteko. Horrek enpresa-auxiliar asko erortzea ekarri du".

Baina eskualdeko enpresa nagusien irabaziaz handitu egin dira krisi garaian. Vidrala, Tubos Reunidos eta Tubacex enpresak batera 315 milioi euro baino gehiago irabazi dituzte azken bost urteetan.

Erraztik uste du bigarren sektorean berreskurapen ekonomikoa hasi dela, "baina ez industria guztietan". Krisiaren aurreko urteetako produkzioa ohiko baino handiagoa zela eta horren ondorioz lantegiek %10-20 langile gehiago zituztelako gaineratu du gerenteak, "krisia iritsi zenean lan hori guzti hori galdu egin zen". Gauzak hala, 2016rako Aiaraldean geratzen den industria "berreskuratzea" lortuko delakoan dago Erraztik, baina ez krisia hasi baino lehenago zegoen "boom-aren" mailara arte: "Lanpostuak berreskuratuko dira, baina ez jende guztiari lana emateko moduan". Instituzioek ere geroz eta baliabide gutxiago dituztela erantsi du Irabienek: "Lehen, jubilatze gutxi falta zitzaion langile bat kaleratua izaten bazen, udaletik mesedea egiteko kontratatzen zitzaion. Orain ere gustura egingo genituzke halako politikak, baina legeak ez digu uzten".

Lana bai, baina prekariora

Sortuko den lan prekariora izango dela uste dute adituek. "Egonkortasun ekonomikorako aurreikuspen onik" ez dagoen aldetik "en-

plegurako egonkortasunik" ere ez dela egongo dio Esnaolak: "Hurrengo urteei begira behintzat, egonkortasun³⁾ gutxiko urteak".

Basterrak ere argi ikusi du eskualdean sortzen den enpleguaren atzean dagoen prekarietatea, kontratuen %97 prekariora dela baitio. Abenduan, adibidez, 41 eguneko izan zen kontratuen batz-beste-ko iraupena. "Amurrioren, non Laudion egiten diren kontratuen bikotza egiten diren, %95 ez da hila-bete bateko iraupenera iristen, eta %66ak sei eguneko iraupena baino ez dauka", nabarmendu du.

"Orain sortzen ari den enplegua behin behinekoa da, kaxkarra, baldintza txarretakoa, ikusteke dago urte hauetan zehar galdu duguna errekuaterterik izango dugun", baieztatu du Garciak. Larrazabalek gaineratu du prekarietatearen ondorioz badaudela lanaldi osoan lan egiten arren pobrezian bizi diren langileak, "eta hori ez da onargarria".

JEZ enpresako gerenteak ere bat egiten du sortzen den enplegua "konfiantzazkoa" izatearen beharrez. "Pertsonabatek enpresabaterantz sartzerakoan, lana ondo egin ez gero, enpresan jarraitzeko aukera izan beharko luke". Hala ere, haren iritziz, prekarietatea lantegietan baino, hirugarren sektorean ematen da bereziki.

Merkatariek ere, estu

Industria jaisten ari den bitartean, hirugarren sektorea igotzen ari da, Basterraren esanetan, baina horrek ez du esan nahi zerbitzuetan ez denik krisia nabaritu.

Erreportajea

"Txarrena pasa den arren, krisi honen ondorioak urte askotan zehar jasan beharko dituzte merkatariak". Hala uste du Aiaraldeko Merkatarien Elkarteko Jon Aspuru.

Krisi ekonomikoa, ordea, ez da eskualdeko merkatariak duen mehatxu bakarra. Bilbo alboan izateak ere eragin negatiboa dauka, Aspuruaren hitzetan. Iazko udan zehar eskualdeko turismoa EAEko batzbestekoa baino %10 gehiago igotzea ere ez da bultzada handia izan tokiko merkatariarentzat. "Ez da asko nabaritu", ziurtatu du Aspuru, "politikariek erraz egiten dituzte halako estatistikak, baina proiektuak dira hemen behar direnak".

Berreskurapen ekonomikoa, beraz, urrun ikusten dute merkatariak baita. "Botere ekonomikoa daukatenean dirua gastatzeko beldurra aldo batera utzi dutela dirudi", azaldu du Aspuru, "baina hortik krisia gainditu dugula esatera bide luze egia dago".

Pobrezia arriskua

Langabezia handia egon arren, Aiaraldeko pobrezia maila EAEko batzbestekotik behera dagoela diote adierazleek. Hala ere, familien errenta osoen bilakaerari erreparatu gero, 2009tik aurrera errenten igoera asko mantotu da. 2009tik 2011rabitarte Amurrioren eman zen igoerarik handiena: %4.4.

Denbora tarte berean Kontsumorako Prezio Indizeak 7.5eko igoera izan zuen. Horrek esan nahi du familiek, diru gehiago izan arren, eroste-ahalmen gutxiago dutela.

Pobrezia kontuan hartu beharreko faktore bat izaten jarraitzen



JOSUNE IRABIEN

Amurrioko Alkatea

"Oso nabaria izan da krisia eskualdeko instituzioetan. Amurrioren adibidez, 26 milioi euroko aurrekontua geneukan 2008an. Orain, berriz, 13 milioi eurokoa izatera pasa da"

"Erakundeok duguna mantendu behar dugu, eta ahal den neurrian lagundu. Alde pribatuaren papera ere ezinbestekoa da"

duela azpimarratu du Basterrak, eta hainbat datu eman ditu baieztapen horri begira: Eskualdeko 1082 familiek jasotzen dute Diru-sarreak Bermatzeko Errenta, 2012an baino 262 gehiagok. Iraupen luzeko langabeziak aiaraldearen %55ari eragiten diola gaineratu du ekonomia-kazetariak, eta %66ak ez duela inolako prestazio ekonomikorik jasotzen. "Txarren dagoenarekin konparatzen bazara egia da be-

1996an % 41eko pisua zeukan industriak Aiarako Koadrilan. 2010erako, baina, % 34ra jaitsi zen.

raiek okerrago daudela, baina hoberekin daudenekin konparatu gero gu gara oker gaudenak", ondorioztatu du.

Esnaolak, bere aldetik, prekaritateak "lan pobrea" ekarriko duela gogorarazi du, eta iragarri du hurrengo urteetan errenta aldetik zailtasun handienetan bizi diren herritarrak "gero eta gehiago" izateko aukerak daudela.

Lantegien deslokalizazioa

Gometegui Polonian fabrika bat eraiki nahi izateak edota Tubacexek bere teknologia zentroa Kantabriaren kokatzeak mahai gainean jarri du berriz enpresen deslokalizazioaren auzia. "Kapitalak ez daukala aberririk ulertu behar dugu. Irabaziei begira dago, eta momentu batean ikusten badu errentagariagoa zaiola Euskal Herritik kanpora joatea, hala egingo du", azaldu du Garciak.

Deslokalizazioa, baina, hemengo langileek soldata altuak izatearekin lotuta ez dagoela azpimarratu du Larrazabalek: "Norwegian edo Finlandian soldata altuagoak dituzte eta lanaldi murriztagoak⁽⁴⁾, eta enpresak ez dira bertatik joaten". Erraztik uste du eman den desartikulatze industrialak krisiagatik izan dela, "ez hemen ekoiztea garestia delako".

Langileen soldatak baino, arazoa beste bifaktoretan dagoela adierazi du JEZeko kideak. Alde batetik, lan absentismo altuan eta, bestetik, harreman laboralak zailak izatean: "JEZek beste lantegi bat dauka Ipar Euskal Herrian eta bertan absentismoa askoz txikiagoa da eta lan harremanak askoz hobekoak dira".

Dena dela, Aiaraldeko industria-erikiko "abantaila handi bat" duela ziurtatu du Erraztik: Langile pres-



Enpresa txiki eta ertainak izan dira krisi ekonomikoagatik kaltetuenak. Argazkia: Jon Catalan



JUANJO BASTERRA

Ekonomia-kazetaria

"Dagoen langabeziarekin ezin da inolatan ere berreskurapenez hitz egin"

"Sortzen diren kontratuen % 97a prekarioa da"

"Inbertsioa gehiago sustatu beharko lukete instituzioek"

"Sektore bakoitzari dagokion pisua ematean egongo litzateke soluzioa"

tatuak daudela. "la genetiko den gauza bat da. Hemen badakigu zer den altzairua eta industria. Erraza da Aiaraldea bat lantegian trebatzea. Beste leku batzuetan askoz zailagoa da".

I+G+B, gakoa

Aditu guztiek argi daukatena zera da: prezioen aldetik ia ezinezkoa dela munduko beste ekoizle batzuekin lehiatzea. Gauzak hala, gako⁽⁵⁾ Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza (I+G+B) inbertitzean egon daiteke.

Esnaolaren esanetan, bi modura gauzatu daiteke berreskurapen ekonomikoa. Alde batetik, epe laburreko ibilbidea dago: petrolioaren prezioaren eraginez zenbait enpresatan momentuko lanpostuak sortzen direnean ematen dena. Beste aldetik, "teknologia eta sektore berriekin loturiko jarduerak" abian jarriaz lortuko litekeen berreskurapena egongo litzateke: "Etorkizuneko uhin berri bat lortzeko ezinbestekoa zaio Aiaraldeari bere oinarriak berritzea".

I+G+Ban, baina, %0.86 baino ez da inbertitzen Aiaraldean, EAEko batzbestekoa %1.9 den bitartean. Instituzioek "inbertsioa gehiago sustatu" beharko luketela uste



JON ASPURU

Aiaraldeko Merkatarien Elkartea

"Krisiaz gain, Bilboren mehatxua ere hor dugu eskualdeko merkatariok"

"Kontsumoan aldaketarik ez da nabaritu. Dirua dutenak dirua gastatzeko beldurra galtzen joan direla, akaso"

"Iazko udan turismoak izandako igoera ez da asko nabaritu merkataritzan"



URTZA ERRAZTI

JEZ enpresako gerentea

“Enpresa guztiak sufritu dute krisia, baina ez guztiak momentu berean eta ez guztiak intentsitate berarekin”

“Lanpostuak berreskuratuko dira, baina ez jende guztiari lana emateko moduan”



ITZIAR LARRAZABAL

ELA

“Industria sektoreak oso kolpe gogorra jaso du krisialdi honetan”

“Norwegian edota Finlandian soldata altuagoak eta lanaldi murriztagoak dituzten arren, enpresak ez dira kanpora joaten”



IZASKUN GARCIA

LAB

“Euskal Herriak behar du industria sektore potente bat. Hori landu behar da”

“Beti egongo da deslokalizazioaren arriskua. Kapitalak ez dauka aberririk”

“Prezioekin lehiatzera bagoaz jai daukagu, lantoki eta produktuetan balio eta kalitate erantsi bat bultzatu behar dugu”

Hiztegi lagungarria

Baikor⁽¹⁾, positibo / laz⁽²⁾, pasa den urtean / Egonkortasun⁽³⁾, estabilitate / Murriztagoak⁽⁴⁾, txikiagoak, laburragoak / Gakoa⁽⁵⁾, soluzioa / Suspertze⁽⁶⁾, berpizte

AIARALDEA DATUTAN

_langabezia:

UDALERRIA	2013	2014	% (2014)
Laudio	1662	1724	% 19,1
Amurrio	847	897	% 17,0
Aiara	161	155	% 10,1
Okondo	67	75	% 10,7
Urduña	345	293	% 13,5
Orozko	97	108	% 8,0
Arrankudiaga-Zollo	51	50	% 9,7
Artziniega	116	117	% 12,1
Arakaldo	6	9	% 11,1

2013ko abendutik 2014ko abendura % 2.2 igo da langabezia Aiaraldean, Euskal Autonomi Erkidego mailan % 0.96 jaitsi den bitartean. Amurrioko eta Laudioko langabezia tasak dira nabarmenenak, erkidegoko altuenen artean kokatzen baitira. Eskualdeko gainontzeko herrietan, baina, EAEko batz bestekotik behera dago langabezia. Iturria: Lanbide, Gaindegia

% 53


Emakumezkoek osatzen dute Aiaraldeko langabetuen zatirik handiena. 2011an langabetuen % 50.8a osatzen zuten emakumezkoek. Hala, 1.2 puntuko igoera eman da azken hiru urteetan.

_gizarte seg. afiliazioa

UDALERRIA	2008	2014	ALDEA
Laudio	7150	5942	-1208
Amurrio	4543	4105	-438
Artziniega	422	392	-30
Aiara	1322	1074	-248
Okondo	375	300	-75
Arakaldo	148	89	-59
Arrankudiaga-Zollo	729	504	-225
Orozko	910	852	-58
Urduña	704	543	-161

Azken sei urteetan 2502 afiliatu galdu dira Aiaraldean, %15.34a.

_ehun ekonomikoa sektoreka:



Aiaraldeko ehun ekonomikoa jarduera adarraren arabera aztertzen duen grafikoa. Bertan ikusi daiteke hirugarren sektoreko ogibideek lortutako nagusitasuna, industriaren kaltean. Iturria: Gaindegia

_ikerk.+ berrikuntza

ESKUALDEA	%
EAE	% 1,99
Arratia-Nerbioi	% 1,18
Bidasoa Beherea	% 0,59
Bilbo Handia	% 1,99
Debagoiena	% 4,08
Durangaldea	% 1,60
Enkartzioak	% 0,05
Goierri	% 3,19
Kantauri Arabarra	% 0,86
Plentzia-Mungia	% 1,28
Tolosaldea	% 0,88

Aiaraldeko herri arabarrek osatzen dute Kantauri Arabarra deritzona. Hala, Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza aldetik, Aiarako Koadrila EAEko batz bestekoa baino askoz baxuago dagoela ikusi daiteke goiko taulan. Orozko, Arrankudiaga eta Urduña jasozten dituen Arratia-Nerbioi bailarak, berriz, % 0,32 gehiago dauka, baina Erkidegoko batz bestekotik urrun mantentzen da baita. Iturria: Gaindegia

_enpresa handi batzuen irabaziak

VIDRALA	MILIOI EURO
2010	49,6 milioi
2011	43,7 milioi
2012	46,5 milioi
2013	52,3 milioi
2014	40,2* milioi

TUBOS REUNIDOS	MILIOI EURO
2010	-14,18 milioi
2011	24,43 milioi
2012	10,57 milioi
2013	6,64 milioi
2014	5,1* milioi

TUBOS REUNIDOS	MILIOI EURO
2010	-6,55 milioi
2011	3,66 milioi
2012	11,86 milioi
2013	15,1 milioi
2014	25,2 milioi

* 2014ko irabaziak irailera artekoak dira

_kontratu motak

% 97

Aiaraldean sortzen den enpleguaren gehiengoak da prekariora.

% 17

Kontratuen laurdena denbora zati baterako baino ez da.

41 egun

da kontratu baten batz-besteko iraupena.

* 2014ko datuak.

_kultura

ZINEMA

“Gurea da film laburren Goya sarirako hautatu duten komedia bakarra”

Urteak daramatza KEPA SOJOk (Laudio, 1968) EHUn duen irakasle postua zinemarekin uztartzen. Lau film labur eta film luze eta telesail bana egin ditu. Bere azken lana (*Loco con ballesta*) Goya sarietarako auresailkatu da. Otsailaren 7an egingo den galan ikusiko da Kepa Sojo oholtzara saria jasotzera igotzen den ala ez.

ERREDAKZIOA |  | Txabi Alvarado Bañares

Bide luzearen ostean, iritsi da izendapena. Pozik?

Bai, sentsazio bikaina. Sorpresa bat izan da. Oso konplikatua da Goya sarietarako proposatua izatera heltzea. Zine akademiaren zerrrendako jaialdietako batean garaile⁽¹⁾ atera behar zara. Oso film labur gutxi sartzen dira, 60 inguru; eta Estatuan 700 film labur egiten dira urtero. Ondoren beste sailkapen⁽²⁾ bat egiten dute, zeinetan 15 sartzen diren. Ondoren 15tik 5. Hor gaude orain, finalean.

Ikusi dituzu izendatuak dauden beste lau filmak?

Bai. *Loco con ballesta* da bost filmeen artean dagoen komedia bakarra. Beste pelikulen artean badago Estatu Batuetan filmatutako bat: *Safari*, oso-oso ona dena eta oso ondo filmatua dagoena. Columbinen gertatutako sarraskia⁽³⁾ kontatzen du. *Todo un futuro juntos* da beste filmee-tako bat, etxegabetzeen inguruan mintzatzen dena. Aipatutako bi lan horiek faboritoak direla esan-gu nuke.

Filma horien aurrean, zeintzuk dira “Loco con ballesta”ren indarguneak?

Gurea komedia da, thriller zertzeldak⁽⁴⁾ dituen komedia kostunbrista. Guk daukagun gauza polit bat Karra Elejalderen eta Andres Gertrudixen parte hartzea da. Karra modan dago orain, eta hori indargune bikaina dela uste dugu (Elejalde taldeko gizonetako aktore onenaren Goyarako izendatua izan da *Ocho apellidos vascos*-sengatik).

Nahiz eta guk filma *Ocho apellidos vascos* baino lehenago grabatu, jendeak uste du filma horren arrakasta baliatzeko hautatu genuela Karra.

Ehun jaialdi ingurutan proiektatu da filma: Frantzian, Italian, Errusian, Estatu Batuetan, Mexikon... eta 25 sari inguru irabazi ditugu. Orain gaude tokian gaude eta ikusiko dugu ea zer gertatzen den otsailaren 7an.

Egun horretarako diskurtsoa prestatua daukazu?

“Buruan dugun filma luzea aurrera ateratzeko aurkezpen gutun bezala erabili dezakegu ‘Loco con ballesta’”

“Ehun jaialdi ingurutan egon da filma: Frantzian, Italian, Estatu Batuetan, Mexikon... eta 25 sari irabazi ditu”

“Euskarazko filma labur bat ere prestatzen gabiltza”

Bai. Irabazten badugu diskurtsoa botako dut eta irabazten ez badugu ikasleekin klasean *paripe* bat egingo dugu haientzako. Akademiaren gomendioa da diskurtsoa prestatzea, badaezpada.

Aurre izendapena jaso zenute-netik izendapena jaso arte, baina, ez zarete geldirik egon...

Ez, Madrilera joan ginen filmaren aldeko promozioa egitera. Akademikoen botoa behar duzu. Teknikariz, aktorez, zuzendariz eta kritikariz osatua dago akademikoen taldea; 1200 dira. Gauzak hala, zure pelikularen aldeko kanpaina egin behar duzu. Baina debekatua dago zuzenean zure filmerako botoa eskatzea. Hori egin ez gero kanpoan geratzen zara zuzenean.

Facebooken eta interneten bidez aritu gara promozionatzen, eta hainbat bileratan ere egon gara, akademikoen bila. Akademiko bat topatzen baduzu galdetzen diozu ea zure filma ikusi duen, eta “modu maitakorrean” ikusi dezan iradokitzen diozu. Hori egiten egon gara, baina konplikatua sarraskia⁽³⁾ izan da.

Sailkatua egonda, jaso al duzu ekoizleren baten partez bestelako proiekturen bat egiteko proposamenik?

Ez. Baina izendapena izanda eta saria lortuz gero errazagoa izango da proiektu berri bat ateratzea. Euskarazko film labur bat prestatzen gabiltza, *Hileta*

izenekoa. Film luze baten proiektua

ere badaukagu, eta halakoak aurrera ateratzeko “aurkezpen-gutun” bezala erabili dezakegu *Loco con ballesta*.

Hiztegi lagungarria

Garaile⁽¹⁾, irabazle / Sailkapen⁽²⁾, selekzio / Sarraskia⁽³⁾, hilketa / Zertzeldak⁽⁴⁾, ukitu / Sarraskia⁽³⁾, nahikoa

KEPA SOJO: 18 urteko ibilbidea

“Cien maneras de hacer el pollo al txilindrón” (Filma laburra, 1997)



“Platos sucios” (Telesaila, 2000)



“Looking for Chencho” (Filma laburra, 2002)



“Cuando puedas” (Filma laburra, 2004)



“El síndrome de Svensson” (Filma luzea, 2006)



“Loco con ballesta” (Filma laburra, 2013)



Txani Rodríguez IDAZLEA

_Kamerinoa

Madrid

Madrilera joan zait aste honetan lagun mina. Aparteko argazkilaria da, kazetaritza murgildutakoa, eta oso lan eskaintza interesgarria jaso du bertan. Ez da Madrilan daukadan lagun bakarra.

Beste audioar askok Espainiako hiribururantz jo dute. Herria uztea eta hiri-buru batera joatea lan egiteko ez da kontu berria. Beraz, ez diot sumatzen, alde aurretik, ezer txarrik. Norberak bila dezala nahi duen tokian bere etorkizuna.

Aldiz, geure eskualdearen egoerak kezkatzen nau. Hainbat eta hainbat lanbide jorrazteko kanpora joan behar dugu. Eta eskerrak Bilbotik gertu gauden. Daukagun langabeziaren ehunekoa jasana ezina suertatzen zait.

Ez dago mugimendurik eta lan-gatazkak ugaritu egin dira: lantegien ixtea, EEKak han eta hemen, merkataritza eta ostalaritzaren ahu-lezia... Eta, kultura arloan, are okerragoa da panorama.

Baliteke nik nire lagunaren joatearekin ezkorregia ego-tea, baina egoera kezkatze-ko modukoa delakoan nago. Jendea ez dadila Laudio-Madril trenean joan hemen aukerarik ez dagoelako. Negu gorriak hauek. Horrelako trenak gehiegietan ikusi baititugu iraganean.

Etorkizunean lana, ideien sustapena, erabaki ausartak eta zenbait aldaketa estrukturalak ikusi nahi nituzke talentua nasetatik ez ir-teteko.

_kultura

_kultur leihoa



Lander Arteaga
ZINEMA

Jimmy's Hall



Zuzendariak: Ken Loach
Aktoreak: Barry Ward, Simone Kirby, Andrew Scott...
Iraupena: 106 minutu
Herrialdea: Erresuma Batua-Frantzia

1932. urtea, Irlanda. AEBetan hamar urte igaro ondoren, Jimmy Galton bere herrira bueltatzen da gaixo dagoen ama zaintzeko. Baina etxerabueltatzerakoan, eskualdeko gazteek iraganean martxan jarritako "aretoa" berriz irekitzeko eskatutako diote; dantza, musika, poesia irakurketak edota ikasketa ezberdinak sustatzen dituen areto "aske" bat.

Ken Loach, zuzendari britainiarra, Irlandara bueltan da bere azken lan honetan: *Jimmy's Hall*. Garagarra astintzen duen haizea pelikulan Irlandako gerra zibila ikustatu ostean, oraingoa ondorengo urteetan herriak berak bitziko iraultza nahiak aurkezten dizkigu. Gazteen aldaketa nahiak, estatua (eta Elizaren) kontrolaren aurrean. "Dantza" areto bat, askatasun eta berdintasunaren lekuko.

Pasa den mendeko istorio baten aurrean aurkitzen bagara ere, Loach-ek eta Paul Laverty gidolariak gaur egungo gizarteak berea egin dezakeen borroka isil bat aurkezten digute. Depresio garai batean, galtzeko ezer ez duten herritarrak, boterea galdu nahi ez dutenen aurrean.

Pelikula klasikoaren kutsua eskeretzen den ezaugarri bat da, Irlandak eskaintzen dituen paisaia ikusgarriekin batera. Loach-ek biak hartu eta istorio hunkigarri bezain indartsu bat osatzea lortzen du, bere pelikulen artean nabarmentzen den askatasun oihu bat.

Zaragozara joango dira Aimara Antzerki taldeko kideak



ERREDAKZIOA I

Zaragozako Antzerki Ez Profesionaleko Lehiaketaren VI. edizioan egongo dira Amurrioko Aimara Antzerki Taldeko kideak, datorren otsailaren 20an.

Yo soy la revolución aurkeztuko dute bertan⁽¹⁾. Antzezlan horri esker hainbat sari irabazi dituzte jada⁽²⁾ antzerki taldeko kideak: Rivas Vaciamadrid-eko lehiaketan muntai onenaren saria jaso zuten, eta Raul Garcia aktore onenaren sarirako nominatua izan zen.

Zaragozako lehiaketan, berriz, honako sari hauek lortzeko aukera izan dezakete Aimarakoek: obra onenaren saria, aktore onena eta epaimahaiarena. Antzerki taldeak egindako hamabosgarren antzezlan da *Yo soy la revolución*.

Hiztegi lagungarria

Bertan⁽¹⁾, leku horretan / Jada⁽²⁾, dagoeneko



Black metal musika estiloa jorratzen du Nakkigak. Argazkia: Nakkiga taldea

Europar barrena bira egingo du Nakkiga taldeak

ERREDAKZIOA I

Urte berezia izango da aurten goa Aiaraldeko Nakkiga taldearentzat, aurten hamabost urte betetzen baitira black metal musika estiloa jorratzen duen talde hori sortu zenetik.

Taldeko kideak, baina, ez dute ospakizuna urteurren soil⁽¹⁾ batean utzi nahi: kontzertu-bira bat egiteko asmoa dute. Martxoan aldean

dute bira egitea aurreikusita, eta Espainiar Estatuko zenbait lekutan (Galizia, Valentzia, Zaragoza...) jotzeaz gain, Frantzia eta Portugalera hurbiltzeko asmoa ere badute. "Portugaleko kontzertuak oraindik guztiz lotu gabe dauzkagu", aitortu⁽²⁾ du taldeko kidea den Isma Lopezek, "baina gurekin Orbeo Etxean jo duten Portugalgo tal-

de batzuekin hitz egingo dugu horretarako". Kontzertu horietan euren disko berria aurkezteko asmoa dute Nakkigako kideak. *Amaieraren hasiera* da lan horren izena, eta argitaratu duten hirugarrena da.

Ez dute, baina, bira oso luzea egiteko asmorik⁽³⁾. Taldekide batzuen lan-egunak direla eta, asteburuetan emango dituzte kontzertuak. "Mini-bira bat izango da, egia esan", adierazi du Lopezek. Furgonetan, baina, ez dira bakarrik joango, Euskal Herriko beste talde batekin batera zapalduko baitituzte Estatu Espainiarreko, Frantziako eta Portugalgo oholtzak.

Ez dute, baina, areto⁽⁴⁾ handietan jotzeko asmorik. "Nahiago dugu etxe okupatuetan edo gune auto-gestionatuetan jo", azaldu du Lopezek, "leku berriak ezagutzeko eta ondo pasatzeko aukera emango digu horrek".

Europar zehar

Nakkiga ez da izan atzerritik bira bat egin duen Aiaraldeko talde bakarra. Annunaki Revenge eta The Black Gramolla Conspiracy talde amurriarrak, adibidez, Europar zehar aritu izan dira kontzertuak eskaintzen. "Eslovenian, Frantzian, Alemanian... hainbat lekutan egon ginen", oroitu du bi talde horietan jotzen aritutako Jabi Isasik.

Hiztegi lagungarria

Soil⁽¹⁾, huts, sinple / Aitortu⁽²⁾, onartu / Asmorik⁽³⁾, intenziorik / Areto⁽⁴⁾, kontzertuak egiten diren gunea



Jabi Aspuru

IRAKASLEA

_Lurpetik

Agur, ongi etorri San Anton

Hormigoizko 52 metro kubikokoa da, Amurrioko San Anton Baselizaren aurrean, joan den larogei hamarkadan, eraiki zuten hormigoizko 33 zutabeen kubikazioa. San Anton Baselizaren aurrean Amurrioko Batzarrak biltzen ziren, hor dago Amurrioren jatorria. Amurrioko herritarrei, hiru hamarkadetan zehar, lapurtu digute gure ondare historiko zaharrenaren ikuspegi politena, hormigoiz estalita.

Zorionez, laster botako dute eta sortuko dute beste eraikin berri bat, arinago espero dezagun. Krisialdi garaian sortu da berrikuntza hau, eta hori oztopo baino, aukera bihurtu daiteke. Bazan garaia, la animatzen diren eta garai berean sortutako beste astakeri urbanistikoa konpontzen duten; hor dago Urrutia Jauregia berdin, ezkutatu eta estalia.

Astakeriak ez dira bakarrik Amurrioren izan. 1846 urtean "Revista pintoresca de la provincias bascongadas, adornada con vistas, paisajes y edificios notables" argitaratu zen, eta Aiaraldeko hiru tokiren irudiak agertzen dira, Julio Lambla alemaniarrek egindakoak. Irudietako batean aipatutako Amurrioko Urrutia jauregia. Bestean, Laudioko Katuxako zubia eta dorretxea. Eraikin historiko hori larogei hamarkadan eraitsi zuten, uholdearen arriskuen aitzakiaz. Ez zegoen beste aukerarik bota baino?

Urduñako ikuspegi orokor bat, baina, zorionez libratu da eta hor dugu alde zahar historikoa disfrutatzeko, Artziniegako eta Orozkokoarekin batera Aiaraldean geratzen zaigun bakarrena dena. Gorde ditzagun.

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

2. FINALAURREKOA

OTSAILAK 1, igandea, 17:30ean

LAUDIO, La Salle aretoan

Gai-emaila: Olatz Santocildes Martinez

Sarritik egon behar duen: Bertsolarik 12, 10 lekuko talde batek, gutxienez 6.

www.bertsolaris.com

Marek Arribas	Jagor Aizcorrea	Jon Rial	Unai Mendibil	Felipe Zubizar	Zigor Etxebarria

Araba bertsozale elkarteak

www.aiaraldea.eus

_kirola

RALLY

“Aiaraldeko errepideak Munduko Rally Txapelketa egiteko modukoak dira”

ANGERU CASTROK (Laudio, 1985) Euskadiko Rally Spring Txapelketa irabazi du, bere aitarekin batera. Txikitatik dabil auto lasterketen munduan, eta aurten erronka berriei ekiteko asmoa dauka.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Zure aita duzu kopilotu, genitika kontua da rallyekiko zale-tasuna?

Bai. Auto eta motor lehiaketetan parte hartzen bizitza osoa daraman familia da gurea. Nire anaiak ere urte asko daramatza lehiatzen. Ni lau urterekin hasi nintzen, Zierbenan alokatua dugun zirkuitu batean.

Bide luzea dago car zirkuitu batetik Euskadiko Rally Spring Txapelketa?

Egin behar den lehenbiziko gauza dibertitzea da, izan 10 urte edo izan 20. Zaletasun moduan hartzea ere oso garrantzitsua da, oso serio hartzen baduzu buru arazoak sortu ahal dizkizulako ia, diru asko kostatzen duelako.

Askotan esaten da auto lasterketetan auto ona izateak gidari ona izateak baino gehiago eragiten duela. Egia al da?

Beti izan behar duzu auto lehiakor bat, zure gidatzeko modura ahalik eta gehien egokitua⁽¹⁾. Gidatzen hain ona ez den pertsona bat hobeto lehiatuko da auto on batekin. Baina badaude ekipo txarragoak dituzten gidari onak, azkenean beti zure parean jartzea lortzen dutenak.

Baina autoaren hobekuntzek diru asko balio dute. Nola lehiatu aurrezki guztiak xahutu gabe?

Daukazu diruaren eta gastatzeko prest zaudenaren arabera da hori. Nahi izanez gero, ia guztia xahutu⁽²⁾ dezakezu. Hori da askok egiten duguna. Beste leku ba-

tzetatik murrizten⁽³⁾ dugu; oportetarik, adibidez.

Eta egia da ez duzuela lehiaketetarako entrenatzen?

Kirol guztietan entrenatu dezakezu, baina dituzun baliabideen arabera da. Rally bat ez da berez entrenatzen. Guk egiten duguna errekonozimendua da: ibilbidea bost edo sei aldiz egiten dugu, lehiatu baino lehen. Oharrak hartzen ditugu, birpasatzen dugu, eta horrekin nahikoa da lehiatu ahal izateko.

Baina orduan nola lortzen da trebetasuna, txapelketen bidez soilik?

Bai, txapelketen bidez. Beno, zirkuitu bat ere alokatu dezakezu, bertan zure autoarekin aritzeko. Eta, oso ausarta bazara, errepidean gaizkia zabaltzera tematu zaitezke (barreak).

Txapelketetan erritmo bizian egon eta gero, zaila suertatzen da errepideetako abiadura murriztapenetara moldatzea?

Bai, batzuetan zaila egiten zaizu. Gidabaimena lortu nuenean ni ez nekien gidatzen, ni lasterka aritzen nekien. Urte batzuk behar izan nituen gidatzen ikasketa.

Egun guztia autoaren eserlekuan eserita... izerdi gutxiko kirola da rallyena?

Nik ezetz uste dut. Izutzeko moduko izerdia botatzen duzu autoan. Sekulako temperatura dago. Neguan 35 gradura igotzen da soilik, baina uda partean kanpoan 40 gradu egiten baditu auto barruan tenperatura hori

“Aspaldidanik genuen Euskadiko Txapelketa irabazteko helburua”

“40 gradu eginez gero, autoan tenperatura bikoiztu daiteke; izugarria da”

bikoiztera iritsi daiteke ia; izugarria da. Bost dira lantzen dituzun gorputz-atalak: bi hankak, bi besoak eta burua. Etengabe zabiltza frenatzen, bolantea biratzen, abiadura hartzen. Inertziak ere asko nabaritzen dira. Rally luze baten ostean etxera iristen naizenean egon ziur parranda egitea baino nahiago dudala ohera joan.

Kolpeak ere asko nabaritutako dituzue...

Horiek bai egiten dutela min, gorputzean eta poltsikoan. Pila bat. Baina kolpeak ekidin⁽⁴⁾ ezinak dira kirol honetan.

Euskadiko Rally Spring txapelkunak iza-

tera iritsi zineten iaz. Aurten noraino iristeko asmoa duzue?

Txapelketa hori irabaztea aspaldidanik buruan genuen zerbait zen. Gugan dirua inbertitu duen jendearen laguntza jaso izan dugu, eta aurrean egotea ahalbidetu digun auto bat baliatu ahal izan dugu.

Aurtengo denboraldiari begira kopilotuz aldatzeko asmoa daukat. Nire aita erretiratu egingo da eta neskalagunarekin arituko naiz.

Lehiatzeko beti kanpora joan behar... ez dago errepide onik Aiaraldean ala?

Sekulako errepideak daude. Baina zaletu gehienak Bizkaia eta Gipuzkoa aldekoak dira. Hemen zegoen rally kultura galdu egin da. Malkuartu aldean sekulako zirkuitua egin ahalko litzateke. Badugu bertan egiten zen lasterketa berreskuratzeko asmoa. Artziniega eta Amurrio aldean ere sekulako errepideak daude. Askotan pentsatu dut hemen lasai asko antolatu daitekeela munduko txapelketa bat.

Hiztegi lagungarria

Egokitua⁽¹⁾, moldatua / Xahutu⁽²⁾, gastatu / Murrizten⁽³⁾, kentzen / Tematu⁽⁴⁾, ausartu / Ekidin⁽⁵⁾, saihestu



Iñaki

Isasi
TXIRRINDULARIA

_Helmugari so

Marea laranja

Askotan galdetu didate Pirinioetako “marea laranja” ren barruan zer sentitzen den. Ez da erraza azaltzen, baina sentsazio oso polita dela argi dago. Gorputzean daramazun nekea ahaztu egiten duzu hor barruan. Errepidearen metro bat baino ez zaizu gelditzen pasatzeko, eta jendearen animoak, oihuak eta keinuak oso hurbil dituzu.

Arrisku apur bat ere ez zaio falta egoerari. Jendea korrika, lurrinekin, laguntzeko bultza da bat eman nahian... baina ez da arriskua sentitzen, zoriontasuna baizik. Nahiz eta azkeneko tropelean joan, jendeak zure lana eskertzen duela nabaritzen duzu eta horrek edozeini pozten dio eguna.

Behin, San Mames futbol zelaian egon ginen talde moduan, ohorezko sarea egiteko. Hor erdian ere, partidua hasi baino lehenago, sentsazioa harrigarria da. Beste gauza izango da partidua galtzen joanda sentitu behar dena, kontrako jarraitzaileak kontra izanda eta “zure” jarraitzaileen alde bat ere zure kontra ohiukatzen egonda ere.

Pirineotan ez dago inor zure kontra. Han dauden guztiak zure alde daude. Pentsa, beste talde bateko txirrindulariek ere bere ur botila eskeiniko dizute egarri ikusten bazaituzte!

Lerro hauekin ere, aprobe txatu nahi nuke animo asko bidaltzeko bizikletan istripua izan duen Aner Moreno-ri. Laster ikusiko gara errepidean.




_kirola

FUTBOLA:

Futbol jokalaria eta entrenatzaile izandako Antonio Lagunaren kirol biografia argitaratu dute

Iaz zendu zen Antonio Laguna futbol jokalaria eta entrenatzailea. Senideek Lagunaren kirol biografia argitaratu dute, Bengoa Tabernan eta San Martineko zelaian eskuratu daitekeena. Lagunak sei denboraldi eman zituen C.D Villosan jokatzeko, eta CD Laudion aritu zen gero entrenatzaile moduan.



HOCKEY:

Ganbegi hockey taldeko sei jokalaria hautatu dituzte Euskal Kadete Aurreselektzioarako

Ganbegi 6-2 hockey taldeko sei jokalaria deitu dituzte Euskal Kadete Aurreselektzioaren entrenamenduetan parte hartzeko. Iruñe Larrazabal, Nerea Mendibil, Iraia Sabater, Aimar Sanjurjo eta Jon Fonbellida ludioarrak eta Iker Arrazazuria luiaondoarra hautatu dituzte.



ZIKLOKROSA:

Jon Albizua eta Luisa Ibarrola garaile Abadiñoko Ziklokros Txapelketan

Jon Albizua amurriarrak eta Luisa Ibarrola saratxoarrak euren kategorietako lehen postuak eskuratu zituzten iragan larunbatean (urtarrilak 24) Abadiñon ospatutako ziklokros txapelketan. Oñatiko Lasterketan ere lehen postua lortu du Albizuak, eta Luisa Ibarrola Gueñesen atera zen garaile.

LAUDIO HERRIA LASTERKETA:

“Etxean eta lagunartean korrika egitearen plazerra”



David Del Rio

Lainotsu, hotza agertu zen igande, eta printzipioz hura ohetik mugitzeko batere egokia ez den egoera izan arren, bazen algara Audio Herriko Plazaren inguruan Audioko VIII. Herri lasterketaren presaketarekin. Eguraldi gozakaitz horri aurre eginez, goiz-goizetik hasi ginen lasterkariak zein publiko mordera irteerara gerturatzeko; hasiera batean astiro astiro, gero biziki, eta irteeraren ordurako halakoa zen Aldaikoerrek plazaren giroa eguraldia bera bizigarritu eta eguzkia atera zela korrikalarien beroketa errazteko.

Badute lasterketa hauek, herri lasterketek, beste edozeinek ez duen susmo ezberdina. Horregatik dira interesgarriak, eta seguruenik horregatik zabalitzen ari da hainerraz “running” delakoaren fenomeno leku guztietatik. 11:30ean Aldaikoerrek plazatik abiatu ginean hasieratik bertatik geratu zen agerian horren gako bat: edonork badu bere lekua lasterketa hauetan; lasterketa tenkatu eta ilara luzea osatzen hasi zen.

Aurreakoa infernu-erritmoa zen. Nik eusten saiatu arren bigarren kilometrorako amore eman behar izan nuen nire erlojuak 3.22min/km-ko erritmoa markatzen. Gehiegiiii! Burukoan lortatza galdu nuen, beraz, bitartean taldekide batzuk zein ni baino 4 urte gutxiago (19) dituen Koldo Etxebarria audioarra aurrera zihoazela. Benetan aipatzea mutil honek egindakoa, gazteen artean lehena oso denbora politarekin. Ni bitartean pintxopoteko kañetaz gogoratzen. Ai ama, zelako sufrimendua gaztearen bizitza! Momentu horretan txinatarrean afaldutakoaz gogoratzen hasia nintzen.

Lasterketaren atzeko aldean, berriz, nire espioiek gauzak lasaigoak zirela diote. Hemen aurkitzen

dabeharbadalasterketa hauen politena: aita-semeak, bikoteak, aitona... beraien osasunagatik eta denbora pasatzeko baino ez korritzen dutenak. Batzuk errazago, beste batzuk zailtasunekin, baina guztiak burutu zuten beraien bidaiatxo harratasun osoz. Lasterketa bukatzean batzuekin hitz egiteko aukera izan nuen eta edonori galdeduta ere bakarra zen iritzia: “plazerra da etxean korritzea”.

Eta bien bitartean publikoa, ezin hobea, eta antolakuntzako bolon-

dresak. Txalo bat bientzako, oso gustura sentiarazi baitziguten. Helmugara iristeko beraien animoak hanken blokeoa apurtzen lagundu eta sprint bizian, duintasunez beten nituen azken metroak.

Oso lasterketa politak ditu Audiok, eta zaindu ditzala. Eta ez osasuna edo aisiarentzat duten baloreagatik bakarrik. Horrelako egunetan herriak alaitasuna helarazten du zirrikitu guztietatik eta hori, Mastercard-eko iragarkiak zioen bezala, ez du preziorik.



Dozenaka korrikalarik hartu zuten parte lasterketan /aiaraldea.eus

TXIRRINDULARITZA

“Afrika, Asia eta Europa artean arituko naiz Skydive Dubai taldearekin”

ARITZ ARBERAS (Amurrio, 1986) Skydive Dubai Arabiar Emirerri Batuko taldearen entrenatzailea da eta aurten izango dituen erronken inguruan mintzatu da.



ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Nola sortu da aukera hau, Skydive Dubaira joateko?

Nik ezagutzen dut bere managerra, portugaldarra dena. Iaz galdetu zidan ea zerbait pentsatuta nuen aurtengo denboraldirako. Berak eskatu zidan kurrikuluma bidaltzeko eta nirekin harremanetan jarriko zela adierazi zidan. Azaroaren amaieran deitu zidan galdetzeko ea Dubaira hurbilduko nintzen hiria eta proiektua ezagutzera. Eta hona etorri nintzen. Elkarrekin egon ginen, eskaintza egin zidan eta urtarrilaren 10ean etorri naiz Dubaira.

Erronka kitzikagarria duzu orain eta taldeko txirrindularien artean puntako kirolariak dituzu.

Bai, horrela da. Nazioarteko proiektua da, hasteko ideiarekin, aurten kontinentala izango da baina hurrengo urtean asmoa da taldea profesionala izatea eta buelta handi batean lehiatzea.

Aukera handia da eta hemen Gusev dago, Armstrongekin egon den txirrindularia, Mancebo, Tourrean eta Espainiako Biran ibili dena, Palini, oso sprinter ona dena... Hori da taldearen erdia.

Talde erdia europarra eta afrikarra da eta beste erdia Arabiar Emirerri Batukoa. Helburuaren zati bat da txirrindulari hauek garatzea, entrenatzen irakastea eta haien errendimendua hobetzea.

Zeintzuk dira zure helburuak aurten?

Entrenatzaile gisa arituko naiz, prestaketa fisikoa nire arduraren izango da eta gero lasterketetan ere egongo naiz. Ibiliko gara Afrika, Europa eta Asia artean. Hurrengo astean Dubaiko Tourrera eta gero Gabonera, Langkawira...

Apiriletik abuztura arte Europan egongo gara, antza hemen ezinezkoa da entrenatzea, bero izugarria egiten baitu.

Asmoa da Europan joatea, bertako lasterketak egin eta han entrenatzea.

Nire arduraren zati bat da txirrindulariak antolatzea; entrenatzeko orduak, haien helburuak, haien baloreak, haien pisua... errendimenduan eragiten duten gauza guztiak kontrolpean izatea. Eta lasterketei begira aurreikustea, analizatzea eta estrategia presatzea.

_Herriko plaza

_agurrak



Lucia

Zorionak Lucia! Muxu handi bat zure guraso, osaba, izeko eta lehengusuen partez!

Senideak



Jurgi

Zorionak Jurgi! Zazpiurte bete dituzu jada! Muxu handi bat zure gurasoen partez!

Gurasoak



Garazi

Zorionak ukondokide lotsatiari! Segi lotsa pasatzen ta gogoratu saguzarrek ez dizutela barkatuko!

Ukondo Liante koadrila



Kosko

Gure txikiak 4 urte bete ditu! Zorionak Kosko!! Izugarri maite zaitu gu hirurok!

Aita, ama eta Maialen



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera otsailaren 6a baino lehen.

_denborapasak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

ESKER-ESKUIIN

1. Ez du adorarik, koldar, beldurti. 2. Zerbait egiteko une apropos, egokiera, parada. Baiezko edo ezezko erantzunak jasotzeko galderetan erabiltzen dugun partikula. 3. Funtzio jakin bat aztertzeko proba edo azterketa mota. Mingain. 4. Garai bateko zakur. Burutuko badira asmoak hitzez ez baizik eta ... gauzatu behar dira. 5. Morkots, gaztainaren oskol. Potasioaren ikur kimikoa. 6. Ibar, bailara. Halaxe esaten diote grina edo irrikari Bizkai aldean. 7. Emakume izena. Hortaz, horrenbestez. 8. Euskaraz urri dira hasieran kontsonante hau duten hitzak. Zerbait egingo delako keinua egin. 9. Ezin onartuzko.

GOITIK-BEHERA

1. Besteak beste legebiltzarkideak berritzeko herritarrok lau urtean behin ematen dugun zera. Errioxako hiri ezaguna. 2. Funtsean ikerkuntzan oinarritzen den lan. Nitrogenoaren ikur kimikoa. 3. Gorputzaren atal batez ari garela, biluzik edo estali edo jantzi gabe dagoela adierazteko. Giza gorputzaren zutikako posizioa. 4. Talde handitan. Erbioa balio du. 5. Zibilizazio guztien hasieran. 6. Gomit, gonbidatze. Harridura adierazteko interjekzioa. 7. Lehenengo bokala. Dirudienez, itxura batean. 8. Neurri ezberdineko aleak bereizteko tresna. Puska. 9. Elizan egiten den jendaurreko ospakizun edo zeremonia.

ERREZA

					5		
5	4	7	9	8	3	2	
3	7		2	5	6	8	9
		6	2	8	7		
7		8		2			
6	8						
	5	3	7		8		
2	3					4	
			4	3			

ZAILA

	6	8				3
		9			5	4
4	5		7		9	8
		6	8		5	
		1		4	3	8
	1			7	6	3
9	7	1	6			
6			3		1	9

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz geziadun soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.com/users/denborapasak>



_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Zenbat fruta jaten duzu egunero? Energia ez da entxufeetatik edo eguzkitik bakarrik xurgatzen! Jaten dugula garena diote, beraz, zuk ondorioztatu ea naturala eta orekatua zaren! Osasuna ondasuna da, ez ahaztu!



GALTZAGORRIAK

02.19 - 03.20

Egunero jaio eta hiltzen gara. Ahaztu buruan dituzun pelikulak, argitu gabeko misterioak asko dira. Kontua ez da hil ondoren bizitzarik dagoen, heriotzaren aurretik bizirik egon den baizik. Duzuna gozatu eta falta zaizuna osatu!



HERENSUGE

03.21 - 04.20

Hartu duzu haginlariarenean txanda? Prestatu diru-zorroa! Damuak beti iristen dira berandu, hortzak ondo garbituko bazenitu... Martxa honetan Perez arratoiak menopausia aurretik bisitatuko dizu burukita!



LAMIA

04.21 - 05.20

Gaur hemen eta bihar han! Lanean batetik bestera mugitzea egokitu zaizu... Egia da nekeza dela, baina nomada bizitzak ere badu bere xarma! Pentsatu eta jabetu zenbat pertsona eta toki ezagutzeko aukera duzun eta gozatu unea!



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Alde batetik bestera mugitzeko ez duzu kotxerik behar! Burua fresko izateko ederki etorriko zaizu oinez ibiltzea. Autoa erabili behar baduzu, konpartitzen saiatu, zure poltsikoak eta ingurumenak eskertuko du!



BASANDERE

06.21 - 07.20

Dena ez da txuria edo beltza, bizitzak kolore gehiago ditu! Guztiok ditugu gauzak beltz ikusten ditugun egunak, gure arazoetatik harago inguruan ditugun pertsonak eta koloreak ez ditugulako ikusten!



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Ohartu zara zenbat komuneko paper kontsumitzen duzun? Zuhaitzek ez dute zertan zure arduragabekeria ordaindu. Etxean eta lanean zaudenean gauzak berrirabili edo birziklatzen badituzu denok izango gara onuradun!



JENTILAK

08.22 - 09.22

Gatza eskatzearena bizilagunekin harremantzeko sortu zen aitzakia bat baino ez da. Ausartu zaitz igogailuan eguraldiaz hitz egitea baino interesgarriagoak diren elkarrizketak izatera! Pertsona horrek zer pentsatzen duen jakin nahi baduzu galdeiozu!



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Arraultzak gordinik jaten hasi beharko zinateke Agate Deunaren bezperan kantatzera atera nahi baduzu! Horrela jarraitzen baduzu zure ahotsarekin eta hotza medio kalean dauden txori apurrik usatuko dituzu!



MARI

10.23 - 11.22

Batzuetan irabazi egiten da eta bestetan galdu. Arriskatzen duenak akaso irabaz lezake, baina egiten ez duenak porrota ziurra du! Ez izan beldurrik eta ekiozu amestu duzuna egi bihurtzeari! Urratsa ematen duenak soilik egin lezake hegan!



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Zein da irakurri duzun azken liburua? Irakurtzeak jakinduria eta jakinmina elikatzen ditu. Bada apaletatik atera eta abenturatan galtzeko garaia! Ez baduzu irakurtzea atsegin beste aukera bat ere baduzu: abentura kalean bizitzea!



SUGAAR

12.20 - 01.19

Noiztik ez diozu mezurik idatzi? Zergatik tematzen zara pentsatzen duzuna zuretzat gordetzen? Jakin ezazu korapiloz betetako soke ez dute ezertarako balio. Askatzen direnak, aldiz, jolasteko, heltzeko, bidea markatzeko... balio dute. Esnatu zaitetz bada!

_irakurlearen txokoa

_agenda

01.29 OSTEGUNA

17:30 LAUDIO
AGATE DEUNA
Entsegua
Basalarrina

18:00 LUIAONDO
AURREMATRIKULAZIOA
Etxaurren Ikastolaren
aurkezpena
Gizarte Etxea

18:00 LAUDIO
HEZKUNTZA
Teknologia berriak: lagun
ala etsai?
Laudio Institutuko
liburutegia

19:00 ARESPALDITZA
HITZALDI AURKEZPENA
Goienar energia
kooperatiba
Aiarako udaletxea

19:00 LAUDIO
ELKARRETARATZEA
Asilo politikoa Hassanna
Aaliarentzat
Lamuza Plaza

01.30 OSTIRALA

15:00 AMURRIO
AURREMATRIKULAZIOA
Bilera Lucas Reyn
Haur Hezkuntzako eraikina

18:00 ARETA
PILOTA
Herriaren elkartearen
torneoaren finalak
Frontoia

18:30 OROZKO
GURE ESKU DAGO
"Jostunak" dvd emanaldia
Donibane Aretoa

01.31 LARUNBATA

09:00 URDUÑA
MENDI IBILALDIA
Txarlazo mendia taldeak
antolatutik
Tren Geltokia

SAN BLAS



01.31 LARUNBATA LAUDIO

- 10:00etan **Azokaren hasiera:**
- 13:15etan **Herriko Baserritarrei Omenaldia.**
- 14:00etan **Txarripata XVI Gastronomi Lehiaketaren Sari Banaketa**
- 18:00etatik aurrera **Euskal Dantzak:** Loudioko Dantza Taldeak **Gaztain dastaketa**
- 19:00etan **Erromeria Fi ta Fik taldearekin Kinielak**
- 20:00etan **Terencio VIII. pisaketa.**
- 20:30etan **Zozketa.**

20:00 AMURRIO
ANTZERKIA De cuerpo presente, Gorka ginagaldia
Amurrio Antzokia 10€

PUNTAZO EGUNA



01.31 LARUNBATA AMURRIO

- 12:00 **Trikipoteoa**
- 13:00 **Txupinazoa**
- 14:30 **Bazkaria**
- 16:00 **Txipiroia**
- 18:00 **Puntazo unea, sorpresa**
- 19:00 **Batukada**
- 22:00 **Kontzertuak: Zea Mays, Monkey Painters, Akerbeltz**

02.01 IGANDEA

17:30 LAUDIO
BERTSOLARITZA
Arabako finalerdiak, 6 bertsolari
Lanbide Heziketa Eskola

02.02 ASTELEHENA

17:15 LAUDIO
AURREMATRIKULAZIOA
Ate irekien jardunaldia
Latorro Ikastetxea

18:00 AMURRIO
AURREMATRIKULAZIOA
Bilera 2 urteko umeen
gurasoentzat
Kili Kolo Haur Hezkuntza
(Etxegoien 19)

18:30 AMURRIO
UDAL BILERA
Landakoko auzokideekin
auzo batzarra
Udaletxea

02.03 ASTEARTEA

16:30 OROZKO
AURREMATRIKULAZIOA
Ate irekien jardunaldiak
Orozko Eskola

18:00 LUIAONDO
AURREMATRIKULAZIOA
Aresketa Ikastolaren
bilera orokorra
Gizarte Etxea

02.04 ASTEAZKENA

17:30 LAUDIO
OHITURA
Agate Deuna, kalejira
herritik
Basalarrina

18:00 AMURRIO
AURREMATRIKULAZIOA
Bilera 3 urteko umeen
gurasoentzat
Aresketa Ikastola

18:00 LAUDIO
AURREMATRIKULAZIOA
Ate irekien jardunaldia
Laudio Institutua

18:30 AMURRIO
UDAL BILERA
San Jose auzokideekin
auzo batzarra
Arenalde elkartearen
egoitza

18:30 LAUDIO
MARTXOAK 8
Bilera egitarau bateratua
prestatzeko
Erabilera anitzeko gela

02.05 OSTEGUNA

17:15 LAUDIO
AURREMATRIKULAZIOA
Ate irekien jardunaldia
Lamuza Ikastetxea

19:30 LAUDIO
KORRIKA
19. Edizioa aurkeztuko dute
Basalarrina

02.06 OSTIRALA

18:30 AMURRIO
UDAL BILERA
Goikolarrako auzokideekin
auzo batzarra
Kulunken plaza alboan
dagoen lokala

02.07 LARUNBATA

10:30 URDUÑA
AZOKA
Baserritarren azoka
Foru Plaza

20:00 AMURRIO
DANTZA
Divenire
Amurrio Antzokia (9€)

02.08 IGANDEA

11:00 LAUDIO
UMEENTZAKO KIROLA
Ikastola krosa
Lamuza Parkea

ZINEMA

01.30 OSTIRALA

"EL PATIO DE MI CARCEL"
OKONDO ESKOLA 19:00etan
doan, zineforuma

01.31 LARUNBATA

"THE LUNCHBOX" LAUDIOKO
LANBIDE HEZIKETA ESKOLA
17:30etan eta 20:00etan (2€)

02.01 IGANDEA

"STAND BY ME DORAEMON"
AMURRIO ANTZOKIA 17:30etan
(3,60€)



"RASTROS DE SANDALO"
AMURRIO ANTZOKIA 19:30etan
(4,80€)

02.02 ASTELEHENA

"RASTROS DE SANDALO"
AMURRIO ANTZOKIA
20:00etan (3,60€)

02.07 LARUNBATA

"JIMMY'S HALL" LAUDIOKO
LANBIDE HEZIKETA ESKOLA
17:30etan eta 20:00etan (3€)



02.08 IGANDEA

"LAS AVENTURAS DEL
PEQUEÑO FANTASMA"
AMURRIO ANTZOKIA 17:30etan
(3,60€)

"DIOS MÍO, ¿PERO QUÉ
HEMOS HECHO?" AMURRIO
ANTZOKIA 19:30etan (4,80€)

02.09 ASTELEHENA

"DIOS MÍO, ¿PERO QUÉ
HEMOS HECHO?" AMURRIO
ANTZOKIA 20:00etan (3,60€)

Jimmy jazz gasteiz

OTS 6 // **SUITE SOPRANO**
+ Elhombreviento
21:00 (8 + gastuak / 12 €)

OTS 12 **MURSEGO** - Mara
20:30 (6 + gastuak / 8 €)

OTS 20 **THE LOGICAL GROUP** - The Best
SUPERTRAMP Tribute Band
21:00 (18 + gastuak / 22 €)

OTS 21 // **PINK TONES -**
"A PINK FLOYD Live Show"
20:00 (20 + gastuak / 25 €)

OTS 26 // **QUEQUÉ**
22:00 (12 + gastuak / 15 €)

Andre Maria Zuriaren Koratzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre higiezin agentzia

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 180.000 €
70 m², logela 2, bainugela 2, balkoia, altzariz
hornitua, kanpoaldera, igogailua, trastelekua.
Erref.: 167.550



PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 265.000 €
84 m², logela 3, bainugela 2, kanpoaldera,
2010. urteko eraikuntza, altzariz hornitua,
balkoia, trastelekua, igogailua, garajea
Erref.: 167.538



PISUA SALGAI ARETAN
Prezioa: 205.000 €
80 m², logela 3, bainugela 2, sukaldea
balkoiarekin, altzariz hornitua, kanpoaldera,
igogailua, trastelekua, garajea.
Erref.: 167.572

ETXEA SALGAI LEKAMAÑAN
Prezioa: kontsultatzeko
172 m², logela 3, bainugela 2, komuna,
sukaldea jakitokiarekin, egongela
tximiniarekin, garajea, trastelekua, bi arkupe,
1.150 m²-ko lursaila.
Erref.: 167.562

BASERRIA SALGAI LAUDION
Prezioa: 300.000 €
246 m², 3 solairu, mugakidea den lursaila,
teilagina, labea, 163.000 m²-ko lursaila,
eraberritzeko, negoziagarria.
Erref.: 167.551

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 134.000 €
90 m², logela 3, bainugela 2, kanpoaldera,
sukaldea eta egongela balkoiarekin, igogailua,
trastelekua, garajea, Babes Ofizialeko
Etxebizitza.
Erref.: 167.567

LURSAILA SALGAI LAUDION
Prezioa: 200.000 €
648 m²-ko hiri-lursail urbanoa,
familiabakarreko edo bi bizitzako
etxea eraikitzeko aukera, 760,5 m²-ko
eraikigarritasun maximoa etxebizitzan.
Erref.: 167.525

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu



GOIENER KOOPERATIBAREN AURKEZPENA: Aiarako Biltokia elkarrekin antolatutik gaur udaletxean arratsaldeko 19:00etan Goienar Kooperatibak azalduko du bere proiektua; energia berriztagarrien bitartez subirautza energetikoa lantzea.



HERRIAREN PILOTA ELKARTEAREN TORNEOKO FINALAK: Kategoria ezberdineko torneoak antolatu ditu Herriaren elkarrekin eta bihar, arratsaldeko 18:00etan hasiko dira finalak Aretako Frontoian. ETBn ere ikusteko aukera emango dute, baina larunbatean.



Udaletxeko fatxadatik presoan aldeko ikur bat kentzeko agindu du epaileak

Maria Gaviña

“Aiaraldearrek badute gustua eta, orokorrean, ondo janzten dira”

MARIA GAVIÑA (Urduña, 1983) moda eta “lifestyle”ari buruzko LBD bloga sortu zuen duela urtebete, Antena 3en laguntzarekin. Moda munduko maila altuko jendearekin aritzeko parada izan du.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Ez daramazu denbora asko blogarekin baina makina bat post idatzi dituzu jada, pozik?

Denbora batetik ona, zerbait berriaren parte hartzeko beharra sentitzen nuen. Moda betidanik izan dut gustuko, beraz Antena 3en laguntzarekin, “Blog LBD” weba sortu nuen Wordpresen, nire gustuez eta lifestylez idazteko. Geo-rogo markekin kolaboratzen hasi nintzen, eta moda ekitaldiak joateari ekin nion. Bat-batean, mundu “blogger”an murgilduta ikusi nuen neure burua.

Moda munduko maila handiko jendea elkarrizketatu ahal izan duzu. Zeinek geratzen gara?

Lorenzo Caprile jostuna elkarrizketatu nuen eta aktoreen artean Mario Casas, Belén Rueda eta Adriana Ugarte elkarrizketatu ditut. Guztietatik zerbait ikasi dut, modak puntu desberdinetatik lagundu dio bakoitzari. Caprilarentzat, adibidez, moda bere ogibidea da eta aktoreei, ordea, pertsonaie-tan sartzea errazten die.

Itxura ala erosotasuna, zer da garrantzitsuagoa arropan?

Uste dut bien arteko oreka bilatu beharra dagoela. Biak dira garrantzitsuak, nire ustez.

Armairu handia da Maria Gaviñarena?

Bai, arropa asko daukat baina esan behar dut aspaldiko arropa ere daukadala gordeta eta noiz-behinka janztea gustatzen zaidala.

Esan zure armairuan duzun eta inola ere ez jantziko ez zenukeen arropa bat.

Soineko luze fucsia bat! Ezkontza batean jarri nuen eta ikaragarria zela uste nuen. Orain, baina, ez zait gustatzen!!

Eta zer arropa ez litzateke inoiz sartuko zure armairuan?

Moda etengabe aldatzen da. Orain inoiz ipiniko ez genukeen, agian, hemendik bi urtetara, gehien gustatzen zaiguna zain daiten. Hala ere, bota zuri batzuk ez nituzke sekula jantziko.

Busti zaitze; ondo janzten al da Aiaraldeko jendea?

Aiaran, eta Euskadin orokorrean, ogia erostera joateko ere apaintzen da jendea. Jantzeko moduan nabarmentzen da hori. Gure auzokideek gustua daukate eta, orokorrean, ondo janzten dira.

Dirua behar da ondo janzteko?

Ez dut uste. Garrantzitsuena gus-tua edukitzea da. Poltsiko guztientzako den-dak daude eta diru gutxiarekin ondo jantzi gaitzake.

Edertasuna barruan dagoela diote...

Nahiz eta edertasuna barruan egon, kanpotik zaintzea ere beharrezkoa da! Jantzerak asko esaten du gure pertsonalitateaz.

Modaz pasatu dira koloretako txandalak eta bestelako arropak. Gaur egungo modarekin ere hori gertatuko da etorkizunean?

Moda beti dago aldatzen. Nork esango zigu 80ko hamarkadako alkandorak edo larruzko galtzak bueltatuko zirela?



Belate
Olabarria
IRAKASLEA

_Leihotik

Kolpe, kolpe, kolpeka, josi ta josi

Nork ez zuen kanta hau ikasi txiki-txikitik? “Kolpe kolpe kolpeka josi ta josi nik zapata”. Bada, kanta bai, baina josten ez dut oraindik ikasi, ez. Hau paradoxa! Josten ikasi ez genuenok ere, orain josteko aukera paregabea daukagu Euskal Herrian.

Aurten Bizkaiko Bertsolari Txapelketan bertsoak josi eta josi aritu dira bertsolariak; puntuak, oinak, azken puntua ... Urriaren erdialdean hasita, abenduaren erdira arte igandero izan dugu bertso saioez gozatzeko aukera.

Gure Esku Dago herri-ekimenak eskuak lotzeko aukera eman zigun ekainaren 8an eta oihalak josteko oraingoan. Momentu historikoa bizitzeko aukera izan genuen! Oraingoan Oihalak josiko ditugu eta beste momentu ahaztezina bizitzeko aukera izango dugu.

Berriro diot: zer diren gauzak! Josten ez dakigunok ere, josi ta josi gabilta. Egunen batean gure herria “josteko” aukera izango dugun seinale ote? agian bai, beraz, ez dezagun aukera galdu, jos ditzagun oihalak, erabaki dezagun zer izan gura dugun!



asesores

elkarlan

www.elkarlan.eu

Aholkularitza: Lanekoa, Fiskala, Kontabilitatekoa eta Juridikoa

Foru Kalea, 2 · AMURRIO · Tel. 945 39 33 51

Lamuza, 12 · LAUDIO · Tel. 94 672 74 28

Torre de Ugao, 12 · UGAO-MIRABALLES · Tel. 94 603 91 65

